



Otsaila 2025

ESKABIDEA AURKEZTEA

Epea: 2025eko martxoaren 7tik apirilaren 3ra arte, biak barne.

Jarraitu beharreko pausuak:

1. **ESKABIDEA** bete. Izena emateko tasa ordaindu beharko duzu epe berean.
2. Aurkeztu online deialdiaren I. eta II. eranskinetan aurreikusitako **MEREZIMENDUAK** egiaztagiriaren kopia (deialdiaren 3.3.1 oinarrian aurreikusitako kasuetan soilik).

Oharra: merezimenduen egiaztagiriak eskabidea amaitu eta erregistratu ondoren soilik aurkeztu ahal izango dira.

ESKABIDEA

1.- Sartu:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-langileak/> – «EPE2025. Bigarren Hezkuntza» – «Onartzeko eskabidea»

edo

<https://hezigunea.euskadi.eus/> – «EPE2025. Bigarren Hezkuntza» – «Onartzeko eskabidea»

2.- Klikatu “Onartzeko eskabidea”

3.- Bete “Agiri mota” eta “Kidegoa”, eta klikatu “Iragazkia aplikatu”.

4.- Bete eskabidearen datuak.

Oharra “Posta-kodea” betetzerakoan: idatzi posta-kodea eta balidatu (posta-kodearen eskuinaldean dagoen botoi berdea sakatu). Aplikazioak automatikoki beteko ditu probintzia eta udalerria.

GARRANTZITSUA: **eskabidean alegatzen duzun titulazioaren** izen zehatza izango da espediente akademikoaren batez besteko nota baloratzeko kontuan hartuko dena (egiaztagiria epean aurkeztu baduzu edo zure Langileen Erregistroan jasota badago).



ABIATZEKO: Datuen Beberako Lege Organikoaren arabera pasarte [hau](#) uertzen eta onartzen dut.

[Datua grabatu](#) [Itzuli](#)

Gorritz eta (*)-z markatutako eremuak derrigorrezkoak dira

ESKABIDE ZBK.

Eskabide ZBK. **M**

VORBERAREN DATUAK

(*)_N.A.N.

(*)_Lehenengo deitura

Bigarren deitura

(*)_Izena

Sexua

(*)_Jaioteguna - - (urtea-hilabetea-eguna)

(*)_Nazioaltate espainiara BAI

IAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA

(*)_Herialdea ESPANIA

(*)_Helbidea

(*)_Posta-kodea

(*)_Lurraldea

(*)_Udalemia

(*)_Telefono Mugikorra

(*)_E-maila

ESKAERAREN MUINA

MAISU-MAISTREN

(*)_Especialitatea

(*)_Txanda

(*)_Alpatzen den titulazioa

(*)_Alegatutako titulazioaren izen zehatza (kidegoan sartzeko eta espediente akademikoa baloratzeko)

ESKAERAKO DATUAK

(*)_Adierazi euskarazko irakaskuntzarako duzun hizkuntza-eskakizuna

[Datua grabatu](#)

5.- Sakatu "Datua grabatu".

6.- Lortu eskabidearen gordekina ("Interesatuarentzako alea"); horretarako, klikatu "Gordekin".

7.- Izena emateko tasa on-line ordaintzeko aukera agertuko da, ordainketa-pasabidearen bidez, sistema berak erakusten dituen jarraibideei jarraituz. Horretarako, klikatu "Odaindu".